


**Abenduaren
24ra orduko
Begitu-lagun
egiteak saria
dauka**

13. orrialdea

**Auzo arteko herri kirol
txapelketea Zeanurin 17an**

Zeanuriko auzuneen arteko herri kirol desafioa hilaren 17an izango da, frontoian, arrastiko 17:00etan. Bost auzunek hartuko dabe parte: Asterria, Otzerimendi, plazea, Undurraga eta Uribe. Talde bakotxean, 4-5 neska eta 6-7 mutil egongo dira eta zazpi proba puntuagarri jokatuko dabez. **10. orrialdea**



**Irati
Intxaurrega
Bizkaiko
Txapeldun
ziklo-krosean**

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

154

2011ko abenduaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Arratiatik Kongresu eta Senadura

**Madriko Kongresuan Zeberio
Aitor Esteban eta Senaduan,
Zeanuriko Rut Martinez dagoz.**

Biak EAJ-PNVkoak dira eta "gure interesak defendatzera" doazela Madrilerako dinoe. Zeberiokoarentzat hirugarren legealdia da; Martinezentzat, barriz, lehenengoa.

Estadutu barri baten proposamena daroe, "azkenengo lau urteotan, falta ziran 18 eskumenak lortu ziran. Orain beste pauso bat emon behar da eta Espainiak gure nazinotasuna errekonozidu beharko leuke" dino Estebanek. Gauza batzuk Amaiurregaz batera egiteko asmoa agertu dabe, baina "ez danak", gauzak egiteko moduak eta gizarte eredu

desbardinaren alde dagoz eta.

Europako ikurra dan ongizatean, Estaduan aitzindari izan dala Euskadi dinoe eta gitxineko errenta eta barrantasun legea horren adibide dirala. Europa bultzatzearen alde agertzen dira EAJ-PNVkoak eta ongizatearen estadua mantendutea Europaren identitatea mantendutea dala uste dabe.

Rut Martinez Ipar Irlandatik etorri barri da. Lokarrik antolatutako alderdietako "gazte"akaz egon da hango bake prozesua ezagutzen, "hango egoerea guztiz desbardina da" dino Martinezek. **8. eta 9. orrialdeak**



Aitor Esteban eta Rut Martinez.

ARRATIA

**17an enkantea
eta 31n
manifestazioa
presoen alde**

Arratiako Egin Dezagun Bidea ekimenak antolatuta enkantea egingo dabe Dimako Jentilzubi Herriko Tabernan, hilaren 17an, 23:30ean. Enkante honen bidez batzean dan dirua "euskal errepresaliatuen alde" erabilten da. Egitarau zabala prestatu dabe egun horretarako.

Hilaren 31n barriz, urtero Igorren egiten dan presoen aldeko manifestazioa egongo da. **7. orrialdea**



ARRATIA

Herrietako Gabonetako programak

Itzela da gure eremuko 10 herrietan Gabonak dirala eta herririk herri antolatu diran egitarauak. Nongura eta zenbatgura ekintza. Olentzero da herri guztietan topauko dozuen ekintzea eta hortik aurrera danerik topau leike irakurleak; bi aitzazarren Ruper Ordorika Igorren eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots Zeanurin. Lemoako eta Areatzako gaztetxeen programak be badakarguz orriotara. **5. 6. eta 7. orrialdeak**



ARRATIA

Preserbatiboak saltzeako makinak

Gero eta gehiago dira Euskadin GIB/HIESak kutsatutako personak. Izan be, seropositibo horreek 200 inguru dira urtez urte eta Arratia ez dago errealidade horretatik kanpo. Horregaitik preserbatiboak saltzeako makinak ipiniko ditu mankomunidadeak gazteen aisialdi lekuetan, edozein egun eta ordutan eskuragarri izan daiezan preserbatiboak. **7. orrialdea**

PSIKOLOGIA GABINETEA

Begoña Charro 674 851 455 [Kolegiatu zenbakia B103523]
bego.charro@yahoo.com

Iban Onandia 645 813 584 [Kolegiatu zenbakia B103512]
psicologia.amorebieta@gmail.com

**Eskola errefortsu neurriak,
depresioa, hiperaktibitatea,
elikadura nahasteak...**

Txikerra 2. AMOREBIETA-ETXANO
General Concha 12, 3 ezkerria. BILBO

KANTU HERRIKOIAK

GORBEIAKO
ETZANTEGIA

Gorbeian dago etzantegi bat haize ederrak hartzeako, udan bertara datorrenentzat osasun ona badeuko.

Ez ba gelditu etori barik Gorbeia etzantegira, udaldi ederra igaro leike eguraldi onak badira.

Mila berrehun de hogeit bat metro itsasoaren gaineti, ezer bertara gura dabenak esan Eleuteriori.

Etzantegian dago otzein bat izena dauko Eugenio, kozinerutzan bera langorik munduan ez dala jai.

Esne ederra, gaztai biguna, manzanila gozoenak, hartuko dituz etzantegira bertara datozen danak.

Oge biguna lo egiteko izera garbi-garbiak, aurkituko dauz ganerako be estali berogarriak.

Etzantegitik inora bere joan beharrik ez dago, bainuak bere hartu zenkiez odola miatuteko.

Ganera bere badogu bertan danontzat beharrezkoa. Kristinau onak diranarentzat otoitzerako lekua.

Ermitaxo bat hatx zulo baten danok meza entzuteko. Artzainak bere guzti-guztiak Jaungoikoa goraltzeko.

Gero zeuk eroaten bozue urdailea zegaz bete, ziur nago ba egingo dozuela agur hurrengo urterarte!

Jakitun zaoze ta ez ba ahaztu Gorbeia ez da lehengoa, nahikua esan dautsuet eta orain amaitutera noa.

Izan danok osasun eta ondasuna be ugari. orain bagoaz hurrengorarte bitartean ondo ibili.

Gorbeia etzantegia

1987an, Zeanurin, Udako Euskal Unibertsitateko musika taldeak jasoa.

Oharra: Laugarren bertsoan Zeanuriko Bizenta Sagarnak egindako zuzenketa ezarri da.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak**Abenduaren 12tik 18ra**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

Abenduaren 19tik 25era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54

Abenduaren 26tik 31ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



bbk



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarizaga.

Erredakzino taldea: Maialen Egileor eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarizaga.

Publizidadea: Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.400 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Peña eta Egaña Arantzazun

Pasa dan zemendiaren 11n ospatu zan Arantzazun lehenengoz bertso afari bat. Afaia, Bildu Kultur Batzordeak antolatu eban eta arazoak (batez be Udalaren partetik) handiak izan diran arren arantzazuztarrok gau parebakoa pasetako aukerea izan genduan. Anjel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña izan ziran bertsoan ibili ziranak eta Igor Menika gai jartzaile beharretan. Ehun bat persona batu ginan Montero tabernan, batzuk bertso egarriz eta beste asko beharrerako gertu eta danon artean sortu zan giro epela eskertu gura geunke Bildu Kultur Batzordekook.

Ordu bi baino gehiago luzatu zan bertso jai hau atal bitan bananduta egon zan. Lehenengo saioan Peña eta Egaña librean aritu ziran eta sarrera legez bertso honeek entzun ahal izan genduzan:

Peña:

Arrazoi dezu aparkalekua handia eta itzela Monterorekin topo egin degu aurrerantza gindoazela bihar Gipuzkoan esango det denek jakin dezatela Bizkaiaiko Arratian ere Arantzazu bat badela.

Egaña:

Euskal Herrian Arantzazu bat nabarmena da indarrez Oñatikoaz ahaztea ezta euskaldunarentzat errez Arantzazu hau ezberdina da esango dut irrifarrez amabirjinik eztago hemen eta premirik ere ez.

Bertso honeetan ikusten dan moduan umoretsu hasi zan saioa eta umorea izan zan nagusi gau osoan. Librean amaitu eta ordu laurdeneko atsedenen ostean Kultur Batzordeak presatutako gaiak landuteari ekin eutsien bertsolariak.

Itzela izan zan jentearen erantzuna eta bertan entzun ahal izan genduzan txalo zaparrada eta barreak. Itzela bertsolariak ikusleakaz izandako hartu-emoia. Itzela baita be afaia bera (zorianak sukaldariai). Sano pozik gagoz Arantzazun egin dogun lehenengo bertso saio honek izango dauan erantzunagaz eta datorren urtean be beste afari bat izango dala seguru egon.

Arantzazuko Bildu Kultur Batzordeak ekintza desbardinak antolatuten segiduko dau, beharrean segiduko dau, herriarrazoak eta herriarentzat. Orain arte aurrera eroan doguzan ekintza guztiak oso harrera ona euki dabe eta holan segidutea espero dogu.

ARANTZAZUKO BILDUKO KULTUR BATZORDEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Pertxet



Personearen ezaugarri positiboak azpimarratzeko erabilten dan berbea da. Ezaugarriok izan leitekez bai alde fisiko edo itxurearen aldetik, ederra edo lerdana esangureagaz (batuaz, pertxenta). Edo baita ahalmenen bateri jagokonez; esate baterako, pertxeta da, kontu edo gai desbardinak berbaz azaltzen ondo moldatzen dan laguna.

Arratian, bidea egiten

Eskubide guztiakaz euskal presoak Euskal Herrira. Kondena beteta daukien presoak kalera. Gaixorik dagozan presoak kalera. Bizi osorako zigorrak kendu. Zigorraren 3/4ak bete dabezanak kalera. Horixe da Egin Dezagun Bidea ekimenetik aldarrikatzen doguna. Horren inguruan mobilizetan gara herrietan hileko azken barikuetan eta beste egun askotan. Eta horren inguruan hainbat ekimen antolatu doguz Gabonetarako Arratian. Abenduaren 17an egun osoko egitaraua Diman, trikipoteoa, bazkaria, ekitaldia, enkantea eta kontzertuak. Abenduaren 31n, manifestazioa Igozren, 18:30ean udaletxetik hasita. Parte hartzeako deia egiten deutsegu herriar, alkarte eta ordezkari politiko guztiak. Eta urtailaren 7an, Bilbon egingo dan herri mobilizazio orokorra Kolosala izango da. Danon esku dago kolosala izatea.

EGIN DEZAGUN BIDEA

Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA



IGOR ESTANKONA

Zuzenbide Ekonomiako lizentziatua

Ondo etorri ekonomia errealera, bankuok

Lehman Brothers handiegia zan jausteko. AEBetako laugarren inbersino-bankua zan, eta krak egin eban 2008ko urri lehenengoan, konturaturik mailegu hipotekarioetan itxitako 60.000 milioe dolar kobratzerik ez ebalu eukiko. Sinbolikoki, orduan hasi zan oraindino gaine-gainean daukagun krisia. Praktikan, askoz lehenagotik dator asuntoa. BEGITUkoak eskatu deuste azaltzeko, eta ez dakit zelan, ez nazalako aditua. Logikea erabilten ahaleginduko naz.

AEBetan berme gixiko hipotekak saltzeako karreraren sartuta egoazan. Edozeineri emoten jakon etxea erosteko dirua, finantza erakundeak hipoteka ariskutsuenetatik be etekinak sortzeako arkitektura sofistika eukien-eta, *subprime* dalakoa. Zorra hogeitakak urterako hartzean danez, bankuak zor hori —berme moduan ipini diran etxeak barne— beste bezero batzuei saltzean eutseen, arriskua eurei transferiduz, eta azken honeek askotan harantzagoko beste batzuei, kate amaiera bakoan. Etxebizitzen prezioak beti gora egiten ebenez, txarrean be hipoteka ejekutau eta kitto. Eta modu honetan egin dogu Lehman Brothers-etik Euskal Herrira, etxebizitzearen burbuilak hemen be errementau behar eban-eta: garantia etxea bada, eta etxearen prezioa behera badoa, negozioa ez da hain biribila, klaro.

Araza, ostera, ez da hipotekena

bakarrik. Bankuen negozio-moduagaz dauka zerikusia. Lehenago, eredu klasikoan, banku batek inguruko sare industrial eta zerbitzuetakoan ipinten eban bezeroen dirua: labe garaietan, CAFen, Aragoara doan autopistan edo baseritarren kooperatibetan. Azken hamarkadetan, ostera, finantza entidadeak bestelako produktu konplikaue tarantza egin dabe. Jentearen aurrezkiak inbersino produktibora bideratu beharrean, espekulazino konplikaue tarata bideratu dabez. Guri 3.000€ urte beterako itxi ezker, itzultzen deuskuen etekina/galera honela kalkulaturik egon leiteke, lasai asko: ekialde urruneko burtsen batz bes- teko indizea + urrearen bilakaerea Londresen + kobrearena Chicagoko burtsan + Suediako bonua urte betera. Horrek urrundu egiten dau inbersino benetako jardueratik, eta badakigu jarduerok dirala, eta ez Chicagoko burtsaren martxea, herri baten lana eta etorkizuna.

Lanean eta lehiazteko gaitasunean inbertidu beharrean, danok, bakotzak bere erantzukizun mailan, irabazi arinen merkadu sintetikoan sinesturik, espekulazinoan inbertidu dogu. Eta galdu. Egia esan, irabazteko itxura handirik ez eukan gure zaldia, ze euskaldunok ez dogu asko aurreratu hezkuntzan, zerbitzuetan, hizkuntzetan, aurrerapenetan, osasun teknologietan... orain "rekortableak" diran gauzetan, hain zuzen. Eta gainera, itsuturik baina halanda be moskeaturik, galdetzen genduzan: eta hainbeste etxe, no- rentzako?

Horregaitik, diseinuko drogetan eta *boom* inmobiliarioan ibili diran bankero eta politikoiak exigidu behar jakie, euren zuloak langileok tapetan doguzanez, ez segiduteko bide horretatik. Eurek egin behar daben gauza bakarra da, artaziak sartu beharrekoan, hasierako filosofia bueltatu: finantziainoa erraztu, jenteari samatik sokea kendu, ez bota beste inor etxetik, aberastasuna banandu, aterabidean sinestu, enpresa-sareari munduratzeko eta gaurkotzeko medioak emon, biztugari fiskalak ipini... Seguruenik horretarako euren saldu bako etxeak kabituten jakiezan lekutik sartu beharko dabez. Baina dirua beste leku batzuetan behar da, urgente.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tomea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrean beharrez,
euskeraz eginez

Euskeraz
Batzen gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



GONTZAL MENDIBIL

Alozoko bizitzea

Zer ete da ba Alozo? Ba horixe, Arratia bailaran darabilgun "zer moduz" itaunaren ohiko erantzuna. Gizakiok bata besteak baten topaketetan edo eta lehen egotaldian "zer moduz?" dinogu geure lehen bera egitea legez. Eta erantzuna ia beti, baikortasunez beterikoa dogu, orduan: "ondo!" Baleiteke erantzunkidea sasoi onenean ez egotea, ondoegi ez ibiltzea, edo osasun edo bestelako arazoz lepo topau ahal izatea, baina, ondoezik topau arren, "ondo!" erantzuten dogu nahinon eta nahinon.

Badagoz tartean erantzun luzetxoagoak eta azalpen gehiago emoten deuskuenak: "Ondo, detaileetan sartu barik!" "Txarrago be egon gozak eta!" "Txarto bez!" "Tainu baten!" "Dexente!" Edo eta ironiazko erantzunak: "hi bestean ez baina ezin gozak keja!" "Sasoian!" "Tenplau!" "Fenomeno!"

Oraintsu esan neuntsan arratiar bateri, "zer moduz?" Eta hara, imbarrez

non dinostan, "ondo jodidute!" Esan be, fraketan estu dabilen arren, imbarrez esan eustan, baina bizitasuna agertu guran bere erantzunean.

Beste arratiar batek aspaldian esandakoa dakartsuet hona: "Zer moduz" galdetzen bahoadie, hik, "ondo!" esaiek beti, ze, galdetzen dauana bihotz onekoa badok, poztuko dok benetan, eta hala ez badok a zelako ostikadea emon deusakean! Ikasgai ona gizon harena.

Zeuon topaketan, betiko lehen galderan, "zer moduz?" itauntzen deusuenetan, arratieraz erantzun daitezue: Alozo! Eta zer ete da "alozoz"? Ondo? Nahiko ondo? Hobeto gurean? Aurrera eginean?... "Bizitza alozokoa" kantetan eban aspaldi baten Leon albokariaren Maurizia koplalariak.

Bada Bilboaldetik saritan ikusten dodan arratiar petoa dan bat, buruargikoa eta erantzun baikorrak botaten dakizana. "Zer moduz?" itauntzen deusadanetan, imbarrez dinosta beti: "Aiko, hobeto gura be ez!"

Arratiarrok geure berebiziko berebetea eta geure izatea dogu. Lekuan lekuko erantzunak emoteko be beti prest. Badakizue, bizitza ironia puntu bategaz hartzeak merezidu dau, eta dirudianeaz, endemas, garunak garbitu eta bizitza luzatzen dau. Beraz, alozoko bidea euki dagizuela guztiok eta egun txarri aurpegi ona jari, belea balzagoez da egingo eta.

Juan Manuel Etxebarria zeberioztar euskaltzale eta hizkuntzalariak Zeberion bildutako koplak dozuez bertan:

*Neure laztana zer dozu?
Kolore txarra daukazu;
koloreak gorrituteko
metal ure edan bear dozu.*

ZERTZEAN



JON ARTETXE



Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Ruandara plastikozko boltsakaz sartzea debekatuta dago. Eta herrialde askotan, leku guztietan ez bada be, boltsa honeek galarazoten dabezan lege eta arauak dagoz: AEBn, Kanadan, Australian, Singapurren, Taiwanen eta abar. European orokorrean zergak ipintea gurago izan dabe plastikozko boltsen erabilera murrizteko.

Argi dago plastikoak ekosistema guztietan kalte ikaragarria egiten dauala. Ehun urtetik gora behar dabe desegiteko plastikozko boltsak eta haizeak erraz errotan dituaneez, zuzatetatik zintzilik eta erreka eta itsasoko uren gainean topetan doguz, isurbideak zarratuten dabez uriolak sortuz eta animalia asko hiltzen dira boltsok janda.

Gurean, erosketak gurditxoak erabilteko kanpaina bi egin dabez. AMEk 60 burditxo zozketatu zituan aspaldi ez dala, eta orain Arratiako agenda 21ek 200 burditxo zozketatuko ditu Arratiako dendetan erosketak egiten dabenen artean. Argazkian horetako batzuk. Plastikozko boltsarik ez erabiltea gure inguruari hainbeste kalterik ez egitea da, duda barik.

Baina gure herriak plastikoagazko dependentzia ikaragarria dauka. Eta janari eta beste produktu askoren bilgarri eta paketatzean plastikoa da nagusi. Erosketak burditxoak eroan arren, ezetz lortu plastikozko boltsarik bako erosketean egitea!




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

 **Ortodontzia**
hagin klinika **Implanteak**
Estetika

Marina Urigoitia Aiderkoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bilakala
T. 94 631 50 39

Nahigaita Zerbaita 110
R.P.S. 25/06

EXCAVACIONES
MARGOIZA

Isiabi
Martin Gorostiza

Ubideratzeak
Lurrerauzketak
Baso pistak
Ur Putzuak
Era guztietako hondeaketak

Bº URIBE - 48144 ZEANURI
Tel. 607 272 424
610 271 128
Tel/Fax: 94 433 22 28
e-mail: margoiza@euskonet.net

ARRATIA

Badator Olentzero!

Gure eremuko herri guztietara etorriko da Olentzero eta hori dala eta, kantuan ibiliko dira herritarrak kalejiran.

Gozokiak eta gaztainak ez dira faltauko. Gabon sasoian umeak ez daukie eskolarik eta hainbat ekitaldi antolatu ditue udalak zein beste alkarre batzuk hareei zuzenduta: Gabon Parkeak, ikuskizunak eta abar.

Nagusientzako be ez dira antzerkia, kontzertuak edo kirolak faltauko. Guztira 75 ekintzatik gora.

Erredakzinoa

ARANTZAZU

Abenduak 24,
Olentzerok opariak bananduko deutsez 6 eta 14 urte bitarteko umeai. Gero gaztaina erreak dantontzat.

AREATZA

Abenduak 24,
17:00etan, Olentzeroren etorre-rea Herriko Plazan, Guraso alkar-reak antolatuta.

Abenduak 26, 27 eta 29
17:30etik 19:30era, ludotekea zabalik: jokoak, zinea...

Abenduak 28,
19:00etan, Alex Txikonen dokumentala Areatzako Gaztetxean.



Abenduak 29,
19:30ean, argazki lehiaketaren sari banaketara plazan.

Abenduak 30,
19:30ean, Urte amaierako kontzertua, Areatzako Bandaren emonaldia eleizan.

Urtailak 2 eta 3,
17:30etik 19:30era, ludotekea zabalik: jokoak, zinea...

Urtailak 4,
10:00etan, BEC-eko Gabonetako Umeen Parkera urteera parkean. (Izena udaletxean emon).

ARTEA

Abenduak 23,
16:00etan, umeentzako ikuskizuna ludotekan eta gero gaztainak eta txokolatea. Guraso Elkarrekin antolatuta.

19:00etan, Artea Kantuan II. Gabon kantak plazan, txitxiburduntzia eta txokolatea. AKKT-k antolatuta.

Abenduak 24,
Arrastian, 17:00ak aldera, Olentzerogaz herritik abesten joan eta plazan erre. Gero, gaztainak egongo dira eta umeentzako opariak.

BEDIA

Abenduak 21,
19:00etan, Arratia Musika Eskolaren kontzertua eleizan.

Abenduak 23,
17:00etik 20:00etara, Gabonetako tailerrak 13 urte artekoentzat liburutegian.

Abenduak 24,
09:30ean, plazan hasita auzoz auzo kantuan.

13:30ean, Olentzero plazara joango da umeak egoteko. Gaztaina erreak bananduko dira.



Abenduak 29,
09:30ean, BEC-eko Umeen Gabonetako Parkera urteera. Itzulera 19:30ean. Bazkaria eta merienda eroan behar dira. Begiraleak egongo dira.

Urtilak 5,
18:00etan, Erregeen Kabalgatea. Aurretik txokolatea bananduko da.

DIMA

Abenduak 16,
16:00etatik aurrera, Umeentzako tailerrak Gaztetxean.

Abenduak 17,
22:00etan, kontzertuak Gaztetxean. Alkartasun eguna.

Abenduak 23,
Bariku kulturala. Talo jana.

Olentzeroren jaia Guraso alkarrekin antolatuta Udalaren laguntzaz.

Abenduak 30,
22:00etan, kontzertuak Gaztetxean.

Abenduak 31,
Gabon Zahar gaua. Karaokea Gaztetxean.

IGORRE

Abenduak 17,
21:30ean, Zea Mays-en Era diskoaren aurkezpena Lasarte Aretoan.

Abenduak 18,
09:30ean, Motxoganekin antolatuta Turroi Eguna. Kiroldegia-Zia-



rrusta-San Juan mendi urteera. Egun osoan, Gazte Asanbladak antolatuta, Kultur Aniztasun Eguna Aterpean.

19:00etan, Areto jantza erakustaldia Lasarte Aretoan.

Abenduak 22,
18:00etan, Arratiako Musika Eskolaren kontzertua. Saio bi. Lasarte Aretoan.

Abenduak 23,
19:00etan, Palestinaren inguruko berbaldia Gotzone Amuriza eta Galder Olibaresegaz Kultur Etxean.

20:00etan, kontzertua Luis Iruarizaga eta Bermeoko Abesbatzaz Lasarte Aretoan.

Abenduak 24,
17:00etan, Olentzero... Mikeletik jaitsi eta aterpean amaitu.

Abenduak 26,
20:00etan, AMEk antolatuta, Zeaniko Antzerki Taldeak nagusien-

tzako antzerkia Lasarte Aretoan.

Abenduak 27,
11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea Aterpean. Zaztaparrak eta Motxoganekin eskutik.

Abenduak 29,
18:30ean, Umeentzako antzerkia Gabon kontuk Lasarte Aretoan.

Abenduak 30,
21:30ean, Ruper Ordorikaren kontzertua Hodeien azpian diskoaren aurkezpena Lasarte Aretoan.

Abenduak 31,
11:30ean, Igorreko IV. San Silbestre lasterketea kiroldegian. Izen emotea 11:00etan.

Urtilak 3,
11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea Aterpean. Zaztaparrak eta Motxoganekin eskutik.

Urtilak 5,
18:30ean, Erregeetako Kabalgatea Mandoia kalean hasi eta Lasarte Aretoan amaitu.

Urtilak 6,
19:00etan, Urtebarri kontzertua Luis Iruarizaga Abesbatza eta Areatzako Banda. Lasarte Aretoan.

ne Txapelketako sailkapena eta erakusketea. Slackline ikastaroa eta umeentzako rokodromoa. Elizondoko plazan.

Abenduak 18,
12:30ean, Bizkaiko Slackline Txapelketako finala. Slackline ikastaroa eta umeentzako rokodromoa. Elizondoko plazan.

Abenduak 22,
10:00etan, J. B. Eguskiza Meabe Ikastetxeekin antolatuta, Gaztaina Eguna eskolan.

Abenduak 23,
10:30ean, J. B. Eguskiza Meabe Ikastetxeekin antolatuta, Gabonetako emonaldia kiroldegian.

12:00etan, kalejira udaletxera: umeak eta gurasoak Olentzerogaz batera

Abenduak 24,
10:00etan, udaletxean Olentzero Eguna. Auzorik auzo Olentzerogaz batera gabon kantak abesten.

Elizondon salda eta txokolatea bananduko dira. Jaiari amaierara emoteko, Elizondoko Kultur Gunean Olentzerogaz egoteko aukera izango da. Gozokiak bananduko dira ume guztien artean.

Abenduak 27,
11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, Gabonetako Haur Parkea Lemoako kiroldegian.

18:00etatik 19:30era, ikuskizuna "Diskoteka Pottoka".

Abenduak 29,
10:30ean, BEC-eko Umeen Gabonetako Parkera urteera. (5 urtetik gorakoentzat) ludotekan. Itzulera ordua 19:00etan. Bazkaria eroan behar da.

Abenduak 30,
11:00etan, Lemoako Udalak antolatuta, Skate eguna, "La Kantera Skate Eskola"ren eskutik Dobako skate klaseak eta skate erakusketea.

11:00-14:00 klaseak; 16:00-18:00 klaseak; 18:00-18:30 erakusketea.

20:00etan, Gabonetako kontzertua Andra Mari eleizan. Isasiko Ama Abesbatza (Gordexola), Mendi-Ona Abeslariak (Sudupe) eta Lemoako Abesbatzen Elkartea (Lemoa).

Abenduak 31,
16:30ean, Eneko Zamalloa Memoriala. Lemoako Gabonetako Lasterketea Elizondon. Gero, herri poteoa.



UBIDE

Abenduak 17,
16:00etan, herriko plazan batu Olentzerori eskutitzak emoteko Olentzeroren etxean. Ondoren, Ubideko gurasoak antolatuta txokolatea eta txurroak.
18:30ean, Toni La Sal-en Ipuin Lapurren txotxongiloak Gazte-
txean.
Abenduak 24,
19:30ean, Olentzeroren kalejire-
rea. Otzarearen zozketea.

ZEANURI

Abenduak 16,
19:30ean, Zeanuriko Abesbatza eta Ermuko Pispillu Abesbatza San Isidro eleizan.
Abenduak 17,
17:00etan, auzuneen arteko Herri Kirol Txapelketea frontoian.
Abenduak 19,
19:00etan, Unai Elorriagaren berbaldia "Nobela idazteko prozesua" Kultur Etxean.
Abenduak 20,
19:00etan, Nekane Juradoren berbaldia "Eskubide historikotik beharizan ekonomikoetara. Ekonomi krisia". Medikuetxean.
Abenduak 21,
19:00etan, "Arratia-Palénque. Alkartasun zubiak eregiten"



erakusketearen inaugurazioa Manterolatarraren aretoan.
Abenduak 22,
18:00etan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna *Zazpikoloroa* frontoian.
Abenduak 23,
18:00etan, Zeanuriko Andra Mari Herri Antzerki Musikala parrokan.
Abenduak 24,
17:00etan, Olentzeroren jaialdia Elizondoko Piedadean.
Abenduak 26,
19:00etan, Ipuin lehiaketaren sari banaketea Kultur Etxean.
Abenduak 28,
Euskadiko selekzioaren partidu-

rako autobusa egongo da jente nahikoak emoten badau izena.
Abenduak 29,
19:00etan, Rosa Lizaso eta Mikel Bringasen berbaldia "kiwizibidaia" Kultur Etxean.
Abenduak 30,
18:00etan, berbaldia "Zeaniztar-
rak munduan" Kultur Etxean.
19:30ean, bertsoaioa "Bertso
barriak entzun gura dauanaren-
tzat jarriak" Kultur Etxean.
Urtailak 3,
BEC-eko Gabonetako Umeen
Parkera joateko autobusa ipiniko
da jente nahikoak emoten ba-
dau izena.

ZEBERIO

Abenduak 16,
20:00etan, "Zeberiotik Alpeetara"
diaporama emonaldia udaletxean.
Abenduak 17,
18:30ean, *Hator, hator...* Olentzero
dator antzezlan eskola zaharrean.
Austarrik antolatuta.
Abenduak 23,
20:00etan, Zeberio IV. Frontenis
Txapelketea Zubialdeko frontoian.
Abenduak 24,
17:30ean, Olentzeroren etorrera
Ermitebarrin. Gero kalejire beragaz.
Abenduak 28,
Euskal Selektzioa-Tunisia Bilboko
San Mames futbol zelaietan. Sarrerek
eta autobusa udaletxean.
Abenduak 29,
19:00etan, "Zeberio historia
ezagutzeko dokumentazio iturriak.
Matxurrena baseriko protokoloak"
berbaldia udaletxean.
Abenduak 30,
18:00etan, "Zientzia ikuskizuna Jon
Kepa Eureka zientzialariak aurkez-
tuta" umeentzako ikuskizuna uda-
letxean.



ARRATIA

Hondakinak prebeniduteko sensibilizazio kanpaina abian

Erredakzioa

Hondakinak Prebenitzeko Planaren barruan, herritarrek sensibilizetako kanpaina abiatu dau Arratiako Udalen Mankomunitateak. Perziklapena izenez, prebenzioa eta birziklapena kontzeptuak zabaltu gura dabez eta horretarako stand informatiboak materialak bananduteko (triptiko informatiboak, berzikletako koloretako poltsak...), umeentzako birzikleta tailerrak eta *No impact man* dokumentalaren emonaldia antolatu dabe Areatza, Lemoa, Igorre eta Zeanurin.

Areatzan, abenduaren 23an
Goiz eta arrastiz plazan stand informatibo eta tailerrak egongo dira. Dokumentala ludotekan ikusi ahal izango da 12:00etan, 17:00etan eta 19:00etan.
Lemoan, abenduaren 28an
Goiz eta arrastiz izango dira ekintza guztiak Elizondoko Kultur Gunean. Dokumentala 12:00etan eta 17:00etan ikustea egongo da.
Igorren, urtailaren 3an
Igorren, barriz, urtailaren 3an udal-
tearen aurrean egongo dira stand informatibo eta tailerrak goiz eta arrastiz. Dokumentala Kultur Etxean eskeiniko dabe 18:00etan eta 20:00etan.

AREATZA

Egutegia egingo dabe Areatzan herriko argazkiakaz

Erredakzioa

Herritarren artean bananduteko, eta herritarrek egindako argazkiakaz, 2012ko egutegia egingo dabe Areatzan. Horretarako, Areatzako Udaleko Kultura Arloak argazki lehiaketea antolatu dau. Argazkiak udalerrikoak izan behar dira eta hilaren 27ra arte bialdu daitezke areatzakoudala.areatza@bizkaia.org helbidera. Argazkirik onenakaz egutegia da egutegia.

Lehiaketa Arratiako edozein herritarrek parte hartu daiteke. Aurkezten diran argazkiak nok, noz eta non atera dauan esan behar da eta gehienez hiru argazki bialdu ahal dira personako. Irabazleak Aldamin jabetxean persona birentzako afaria izango dau sarizat eta argazkirik onenakaz 2012ko egutegia egingo da herritarren artean bananduteko. Sari banaketea hilaren 29an izango da plazan eta bertan parte hartu daben argazki guztiak ikusteko aukerea egongo da.



Areatza.

IGORRE

1000 sari baino gehiago bananduko ditu misinolarien aldeko tonbola solidarioak

Erredakzioa

Aurten be zabalik dago Igorren tonbola solidarioa abenduaren 16, 17 eta 18an, goiz eta arrastiz. Urteotako ohitura dogu hau Igorren. Bertan, euro baten txartela erosiz sari ikusgarriak eskuratu daitezke.
Tonbolarako sariak era bitara lortzean dira. Batetik, hamahiru andra martitzenero batzean da esku lanak egin eta tonbolan opari moduan jartzeko: erropak, amantalak, jantziak eta abar... eta bestetik, opari sorta handi bat

Igorreko dendari, enpresa eta familiak emoten dabez doban.
Aurten milatik gora sari dagoz. Gainera sari bako boletoa ez da bota behar, otzara baten zozketean sartzean da-eta tonbola zarratu eta gero.
Ekintza honetatik ateraten dan dirua misinolari igorretar birengana bideratzen da: Maribel Egiluz, Congon dabilana, eta Juanita Agirre, Perun bizi dana.
Tonbola solidarioa antxinako Andra Mari liburudendan dago, Caja Laboral Euskadiko Kutxa eta Ipar Kutxaren artean.



Erreziklapena.

Umeen moda 0-20 urte
• Babil • Ray • Aranda
• AKC • Guisotz • Arandiga
• Giandab • Leiz • Hassana

sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola

TEORIA EUSKARAZ
ZEIN BIDERAZ

Balantzi: A1, A, B7E

Lehendakari Agirre 31
Telefono: 94 673 71 32
www.garantxe.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK

Gabe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE BIZKAIA

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Telefono-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Telef. 94 631 73 65 - VILLARO

ARRATIA

Lemoako Harriketarren eta Areatzako Fraka-zurien Gabonetako programak

Harriketarrak Gazte Asanbladak, Karabie Gaztetxerako egitarau oparoa antolatu dau. Aldarrikapenez betetako egitaraua, hain zuzen be. Billaroztarren programea be badakargu orriotara Gabon alternatiboak gura dabenentzat.

Erredakzioa

LEMOA

Abenduak 22,
20:00etan, Juan Luis Zabala eta Iñaki Epelderen berbaldia "Gazte-
txeak eta literatura".
Abenduak 23,
22:30ean, kontzertua GOSEgaz.
Abenduak 24,
18:30ean, Olentzero Gaztetxetik.
Abenduak 26,
20:00etan, Kantabriako Haustura Hidraulikoaren Kontrako Asanbladak "La extracción de gas en Euskal Herria" berbaldia.
Abenduaren 26tik 30era,
Arrastietan, animazino tailerra. Izena emon daiteke Karabie Gaztetxean edo Igorreko Kukuma eta

Axular Herriko Tabernan.
Abenduak 28,
LT jai (Lemoa Tudei). Aldizkari barriaren aurkezpena, txurreria, laburmetraje baten estreinaldi mundiala eta kontzertua. Johny & Joseph.
Abenduak 31,
11:00etan, futbol partidu tradizionala.
Urtailak 3,
18:00etatik aurrera, pintxo lehiaketea eta truke azokea.
Urtailak 4,
20:00etan, Kopenhageko etxe okupau baten gaineko dokumentala *Ungdomshuset 69*.
Urtailak 5,
22:00etan, kontzertua Exaixu (Exkizuri tributoa) eta Bou taldeakaz.
Urtilak 6,
20:00etan, *Auzolan kultura* liburuauren aurkezpena.
Urtilak 7,
11:30ean, berbaldia "Elikadura subirotasuna" EHNERen eskutik. 15:00etan, bazkaria bertako produktuakaz. Izena Gaztetxean emon. Bazkalostean, Bilbora manifara.



ARRATIA

Enkantea eta manifestazinoa presoen eskubideen defentsan

Erredakzioa

Abenduaren 17an, Arratiako Egin Dezagun Bidea ekimenak antolatuta enkantea egingo dabe Dimako Jentilzubi Herriko Tabernan, 23:30ean. Enkante hau urtero egiten da Gabon partean eta honen bidez batzean dan dirua "euskal errepresaliatuen alde" erabilten da. Egitarau zabala prestatu dabe egun horretarako: 12:30ean trikipotea, honen ostean 14:00etan alkartasun bazkaria, txartelak Dima eta Igorreko herriko tabernetan dagoz salgai. Arrastiko 17:30ean ekitaldia egongo da gaztetxean eta 18:30ean trikitxarangea ibiliko da heritik zehar. Gaueko 21:00etan kontzertu sorpresea egongo da

Gaztetxean, gero enkantea Jentilzubi eta eguna amaituteko Los quebraos, Jaik eta MG taldeak kontzertua emongo dabe gaztetxean. Egun horretan alkartasun dendea egongo da eta laburmetrajea grabauko dabe.



Enkanteko kartela.

Urtilak 8,
18:00etan, dokumentala *Fasin Pat*. Gero berbaldia "Lantegi berreskuratuak Argentinan" Askapenaren eskutik.

AREATZA

Abenduak 23,
22:30ean Namek planet eta Zirkinik bez taldeen kontzertuak.
Abenduak 24,
Olentzero erre ostean plazan hasita kantu poteoa herrian zehar. Gauean Gabon Gau jai (ginkanea).
Abenduak 25,
19:30ean bingoa.
Abenduak 27,
18:30ean pintxo lehiaketea. 19:00etan merienda. 20:00etan *Fuera de carta* filmaren bideo emonaldia.
Abenduak 28,
19:00etan Alex Txikonen bideo dokumentalaren proiektzioa. 20:45ean Euskal selektzioa vs Tunez partidua pantaila handian.
Abenduak 30,
22:30ean Azken Afaria.
Abenduak 31,
09:00etan Eleizaren aterpetik Gorbeira igoerea. 17:30ean futbito partidua frontoian. Urte barriari ondo etorria, Gabon Zahar jai.
Urtilak 5
Txaparronen V. edizioa.

ARRATIA

Mankomunidadeak preserbatiboak saltzeako makinak ipiniko ditu HIES-a prebeniduteko



Preserbatiboak.

Erkidegoan 2000. urteaz geroztik. Urtean urtean 200 gehiago dirala emon dau jakitera Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM). "Arratia ez dago errealdade horretatik kanpo. Horregaitik, prebenzinoak izan behar dau GIB-HIESaren eta beste STG batzuen aurkako burrukearen helburu nagusia, baita AUMetik garatutako esku-hartze programetatik be" dino Iñaki Olabari Arratiako Udalen Mankomunitateko gerenteak.

Hori dala eta, Arratiako Udalen Mankomunitateak preserbatiboak saltzeako makinak ipiniko ditu bailarako herri desbardineta puntu estrategikoetan. Batez be, "gazteak ibiltzen diran aisialdi, topaketa, alkargune edo zonaldeetan". Holan, preserbatiboak erosi ahal izango dira eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan.

Erredakzioa

GIB-HIESak kutsatutako pertsonen kopurua handitu egin da

BERBALAGUN

ZER DA? NON?

Zelan? ONDO PASAUKO DOT? NORENTZAT DA? ZELAN? ZELAN IZANGO DA? ZENBATERO? NOR JOANGO DA?

ASTEAN ORDUBETEZ TALDE TXIKIETAN EUSKERAZ BERBA EGINGO DOZU
PRATICARÁS Y HABLARÁS UNA HORA A LA SEMANA EN EUSKERA

EUSKERAZ BERBA EGITEKO ERRETTASUNA LORTUKO DOZU
CONSEGUIRÁS FACILIDAD PARA COMUNICARTE EN EUSKERA

ARRATIEREA PRAKTIKAUKO DOZU
PRATICARÁS EL ARRATIANO

JENTEA EZAGUTUKO DOZU
CONOCERÁS GENTE

94 631 53 84

eta
EUSKERAZ BIZIKO ZARA
VIVIRÁS EN EUSKERA

AITOR ESTEBAN ETA RUT MARTINEZ



Aitor Esteban.

Espainiako Kongresuan eta Senaduan "gure interesak defendatzen"

Espainiako zemendiaren 20ko hauteskundeetan, Zeberio Aitor Esteban (EAJ-PNV) Kongresurako eta Zeanuriko Rut Martinez (EAJ-PNV) Senadurako hautatu zituen. Aitor Estebanentzat Espainiako Parlamentuan diputadu dala hirugarren aldia da. Zuzenbidean doktore eta Deustuko unibersidadean irakasle da Esteban. Rut Martinez, lehenengo aldiz izan da hautatua Senadurako. Zientzia Politiko eta Soziologiako lizentziaduna da eta Europako Gaietan dauka graduondoa Zeanuriko zinegotzi honek.

Erredakzioa

Zeanurin eta Zeberion bizi zarie, zerk lotzean zaitue Arratiagaz?

Rut Martínez: Ni 1.999an etorri nintzan Zeanurira ermita batzuk barritzatzeko. Italian nengoan doktoregoa egiten beka eskas batez eta deitu eusten esanez begiraleak behar ebezala ermitak barritzatzeko lanak zirala-eta. Baietz esan eta hona etorri nintzan. Gizona ezagutu eta Zeanurira ezkondu nintzan.

Aitor Esteban: nire andrearen sendia Igorre eta Areatzakoa da baina kasualidade bat izan zan Zeberiora bizitera etortea. Egunkarian begiraturuta aukera bat ikusi genduan eta Zeberiora etorri ginan. 23 urte dira ordutik.

Madrilera joateko zelan antolatzen dozue egunerokotasuna?

A.E.: Goizez plenoa egoten da eta arrastiz lan taldea. Gixienez lan talde bi izaten doguz, batzuetan hiru. Nahiko arin pasetan da astea. Normalean astelehen arrastian joaten gara edo martitzeneko lehenengo hegazkinean, eta egueneko azkenengoan etortzen gara.

R.M.: Niretzat hau lehenengo aldia da eta ez dakit zelan konponduko nagan. Baina taldekideak egon naz berbetan eta antzera. Senaduan

plenoak hamabostean behin dira. Zeanuriko Udalean zinegotzia naz eta espero dot dana egin ahal izatea. Aste bat Madrilera eta hurrengoa hemen.

Ze helburuzagaz zoazie Madrilera?

A. E.: Lehenengo eta behin Euskadiren interesak defendatzera. Beti egoten da autogobernua kentzearen tentazioa eta gure beharra da horren kontra egitea. Horrezaz gainera, esan behar da inbersino oso garrantzitsuak lortu doguzala azkenengo urteetan. Azkenengo lau urteotan, inbersinoetan miloe bat euro ekarri da Euskadira egunero. Eta hain agirian ez dagozan beste gauza asko. Batzuetan oso egoera larrian dagoan enpresaren batetik edo deitzean deuskue gestino batzuk egin behar diralako eta ez dabelako bidea topetan eta taldea birtartekari izaten da bide hori zabaltzen eta laguntzen.

R. M.: Nire asmoa berbera da eta programea be bai. Azken finean EAJ-PNVren programea da.

Politika egiteko jatorriak ideak baino garrantzia handiagoa dauka aliantzak egiteko momentuan?

A.E.: Zuk beste gauza bat esan gura dozula uste dot. Esan argi.

Espainian PP eta PSOE dira partidu nagusiak, hemen lau partidu

nagusi dagoz, horreek biak eta EAJ-PNV eta ezker abertzalea, oraingo honetan, Amaiur. Baina ez da multipartidismoa dagoalako, bipartidismo bikotxa dagoalako baino. Teorian, aurkako ideologia horreek markau debardinak. Dana dala, EAJ-PNV askoz sozialdemokratagoa da PP baino, eta PSOE be ezkerrekoa danik ezin da esan politika sozialdemokratik egiten dauzalako, EAJ-PNVren moduan. Baina momentu honetan, gertatzen da sistema finantziario globalak agintzen dauala, Europa bera be kolokan ipini arte. Eta azkenean, arrisku horretatik ateratzeko Europak ipinten ditu neurriak eta esaten dau zer egin behar dan. Agintea ez dago ez Euskadin ez Madrilera. Orduan, mugak ez dira erabakiorrak, sistema globala baino. Baina Euskadiko interesak defendatzeko seguru asko, jatorria izango da aliantzak ebazten dauana.

A.E.: Nik uste dot kapitalaren aginte honeri aurre egiteko dagoan erantzun bakarra Europa gehiago egitea dala, baina benetako Europa bat. Europako benetako gobernua sortzea. Konbentziturata nago, benetako Ekonomia

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnua: 94 631 80 04

CERRO ERAIKUNTZAK

Behiko suetan, harrietan, azulejoetan... aditua.

Tel: 605 71 64 17
Erreforma orokorrak

GALANTA
Bametik janzteko
Zugandik sanohurbil

**Din, don, dan...
Olentzeroak
GALANTAN**

Lehendakari Agirre 23, Igorre
Telefonoa: 94 631 90 08

ARA OTZ
Lanetan O Jabetzen!

Berrio Ugarina 2 et. - ADIAT Doma - Pibara - www.aramoz.com

ellauri
HOTELA

Naturaz errotuta

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak

Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Esturola, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telfo: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 36 15

expert ARRATIA

E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel: 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax: 94 631 52 89

Ministeritza bat sortu egin behar dala European, eta hortik harantzago joan behar dala eta benetako gobernu bat atera beharko dala. Europako ereduak gizarte zerbitzuetan oinarritzen dana mantentzen egin behar dogu.

Ez dirudi Merkelek eta Sarkozy hori gura dabenik?

A.E.: Baina ezin dabe atzera egin gauza batzuetan, gizarteak ez leuke onartuko. Beste gauza bat da igual Merkel pentsetan dabilela Alemania zelari salbata eta besteak hor konpon. Baina horretarako be Europa behar dabe.

Gobernu bat sortzera derigortuta gagoz eta guk horretan pauso bat aurrerantza emonda daukagu kontzertu ekonomikoagaz. Egia da Espainiagaz daukagula, baina orain batasun fiskalean geureak eredu legez funtzionau leike. Uste dot etorkizunean European sortuko dan eredu guk daukagun kontzertu ekonomiko izan behar dala.

Aurreko itaunari erantzuteko nogaz lan egin Madrilen ba, urteotan gauza asko adostu doguz katalanakaz, blokeagaz... eta ziur nago Amaiurregaz gauza batzuk adostu egingo doguzala. Uste dot Amaiurregaz, alkarregaz, gauzak egin ahal izango doguzala baina ezin dogu esan gauza guztiak batera egingo doguzanik. Gure egiteko moduak desbardinak dira eta gure gizarte eredu desbardinak da. Gauza batzuetan ados egongo gara eta beste batzuetan ez. Esate baterako Abiadura Handiko Trena. Guk uste dogu gure nazino eregiteko tresna bat dala eta eurak ez.

Egia da orain Espainiak ez daukala soberania osoa eta gure helburuak, nire ustez, European beste nazinoen moduan, Espainia edo Frantzia legez, Europa batu baten egotea izan behar daua.

Zein da Senaduaren funtzinoa? Aspaldi honetan Senadua ez dala beharrezkoa entzuten da behin eta barriz...

R.M.: Funtzinoa badauka, Kongresuak daukan berbera. Zer pasetan da? Senadua ezetz esaten badau bueltetan dala Kongresura eta Kongresuak daukala azken berbera. Ez dakit sobran dagoan. Akaso izan beharko leuke benetan lurralde kamara bat. Hori zan bere asmo originala baina nabaria da hori ez dala bere funtzionamentua.

Zuk uste aldatuko dala hor zeozer legegintzaldi honetan?

R.M.: Ez dakit.

A.E.: Baina horretarako konstituzioa aldatu behar da.

Bueno, lehen aldaezina zala emoten eban, baina aginduak goitik datozanean esan lei erre aldatu daitekela.

R.M.: Bai gauetik goizera ia-ia.

Zerk dauka lehenatasuna zuen agenda politikoan?

A.E.: Gure programan badarogau Estatutu bari bat adosteko proposamena, urte asko pasau dira Autonomia Estatutuagaz eta gauza asko aldatu dira. Bada ordua beste belauldi

batzuen eretxiak jasoteko.

Autonomia Estatutuagaz egin zanean Espainia ez egoan Europa barruan, orain bai. Gainera, Konstituzio Auzitegiaren bitartez eskumen batzuk murriztu edo urratu egin ziran. Gauza asko gertatu dira harrezkero, eta azkenengo legealdian, azkenengo lau urteetan, falta ziran 18 eskumen lortu genduzan. Orain beste pauso bat emon behar da eta nik uste dot hori ikurrak garrantzitsuak izango dirala eta ikurrak esaten dodanean esan gura dot nazinotasuna errekonozidutea.

Nik uste dot beste pauso bat emoteko sasoi dala. Zer gertatuko da autonomi sistemegaz Espainian? Ez dakigu, baina tentaldi handia egon daiteke bai PP bai PSOEn aldeetik sistema berrantolatzeko. Eta hori adierazten eta sartu beharko geunke Estatutu bari horren proposamena. Ahaleginduko gara, baina horrek ez dau esan gura egun batetik bestera lortuko dogunik.

Zuen kezka gutxi esan lei berrantolaketa horretan kolokan dagozala autonomiak eta ez Estadua, baina akaso hori legoke kolokan Europako gobernu bateratu baten, ez?

R.M.: Dana da eztabaidagarri.

A.E.: Begiratu beharko litxake ia autonomia batzuk gura daben autonomiarik ala ez. Esaterako, Hezkuntza eta Osasuna banandu ziran PP eta PSOEn erabagia izan zan, baina autonomiak ez eben eskatzen. Lehenengo itaundu beharko litxake -eta horretan dabiz- ia autonomia guztiak euki behar dabezan eskumen eta erakunde guztiak.

Baina Euskadiren egoera desbardinak da beste autonomien aldean. Ezin doguz nahastu Diputazio Probintzialak eta Diputazio Foralak. Ez daukie zer ikusirik. Foru Diputazioak emoten deuskue kontzertu ekonomikoak eukiteko arazoia!

R.M.: European estadiak eta estadietan lurralde eta eskualdeak dagoz. European ez dago eredu bakarra berruko egitea gobernetako. Ebatziak zelari hartu estadi bakotzak antolatu behar dau. Eta Espainian ereduak ez dauala funtzionau nabaria da. Komunitate autonomoak sano desbardi-

EAJ-PNVk Estatutu barri baterako proposamena daroa Madriler.

"Amaiurregaz batera

gauzak egingo doguz,

baina ez danak. Gure

egiteko moduak eta gizarte

ereduak desbardinak dira"

nak dira eta ez dago eredu funtzional bat.

Baina badago inon? Begiratu Belgikari edo Italiari...

R.M.: Baruko arazoak dagozako. Baina Alemanian, adibidez, nahiko ondo funtzionetan dau federazioak. Italiako lurraldeak eta komunitateak ez dira bardinak, podere aldetik nahiko desbardinak dira. Belgikan gauza bera gertatzen da, badagoz eskualdeak, hizkuntz komunitateak... Estadi gehienak daukiez arazoak ebatziak har-tzeako sistema antolatzeko. European orain arte ez dau gura izan estadi barruan sartu, baina akaso hori aldatu egin behar da. Izan be, Europa aldatu egin behar da.

A.E.: Seguru asko, datozen urteak nazio barrien urteak izango dira, Europa barruan behintzat. Flandesekoa gero eta argiago dago eta gero Euskadi eta Katalunia dagoz. Hurrengo urteetan, Europa barri horretan, zeresana eukiko dabe nazino horreek.

Europako Batzar Legegileen Konferentzia ezin da eraginkorra izan.

R.M.: Ez nahaste-borraste bat da. Ni hango Idazkari Nagusia izan nintzan 2008an, Eusko Legebiltzarren presidentzia lortu ebanean. Baina nazinoen presentzia bermatzeko beste eredu bat behar da. Bueltau behar gara hasierako European, nazino eta herietako European.

European hartu diran azken neurriak kontuan hartuta, badago Europako eredu, hau da, ongizate gizarte mantentzerik?

R.M.: European ikurra da ongizatearen estadia eta lorpen hori mantentzeko da European identitatea mantentzeko.

A.E.: Nik uste dot baietz, mantentzeko dala, hori guztiz bameratuta dagoa. Badagoz indar batzuk horregaz amaitu gura dabenak baina nik uste dot ez daukala zerikusirik Ameriketako ereduagaz. Ameriketako eredu horretara jotea ez dau inork gura.

R.M.: bai herrialde askotan, eskoi zein ezkerreko gobernuak egon dira, baina hori bameratuta dago, justizia soziala bameratuta dago.

A.E.: Gixieneko errentan Euskadi izan zan aitzindari Estadian. Eta bardintasun legea be bai: lehenengotik jarri zan hemen eta gero Estadian.

ETAk armak itxi ostean, zelan dagoz gauzak?

R.M.: Lokarrik antolatutako biage baten egon naz Irlandan bake prozesuak ezagutu eta ikasteko. Joan gara alderdi bakotzeko "gazte" bat. Egon dira Aralar, Alternatiba, PSE, Gazte Independentistak...

Esperientzia sano interesgarria izan da. Ipar Irlandako egoera guztiz desbardinak da. Komunitate bien arteko hartu-ermonik ez dago. 12 urte pasau dira eta ondino jarraituten dabe hartu-ermonik barik.

Alderdi guztiakaz eta biktima alkarte pilo batez egon gara. Prozesu politikoa eta prozesu soziala batzuetan batera doaz eta beste batzuetan ez.

Eta hemen zelan doa?

A.E.: hastapenetan gagoz, ez?



Rut Martinez.

JANDONIZ
nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz

- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elexalde 4 behe - 48.140 Igorre (Bizkaia) - 94 657 73 48 - www.kendall-languages.com

HERRI KIROLAK

**Auzuneen arteko herri kirol
desafioa Zeanurin**

Orain dala hilabete bi inguru herriko batzuk batu ziran eta antxina Zeanurin egiten ziran auzuneen arteko desafioak berreskuratutea otu jakien.

Irati Urien

Izan be, "Zeanuri beti izan da herri kirolarien herria", antolatzaileetako baten esanetan. Desafioa aste kulturalaren barruan egitea aproposena izango litxakela ebatzi eben antolatzaileak. Hori holan, Zeanuriko auzuneen arteko herri kirol desafioa hilaren 17an izango da, frontoian, arrastiko 17:00etan.

Bost auzunek hartuko dabe parte: Kolore urdinagaz Asterria, beilegiagaz Otzerimendi, balzagaz plazea, berdeagaz Undurraga eta gorriagaz Uribe. Talde bakotxean, 4-5 neska eta 6-7 mutil egongo dira eta zazpi proba puntuagarri egongo dira: 20 txokor ipini eta batu; sakua eroan (25 kilokoa neskek, 40 kilokoa mutilak); ingudea (18 kilo mutilak, 10 kilo neskek); 10 untzeko txinga eroatea bakotxak (20 kilo neskek, 30 mutilak); aizkoran enbor bi (mutilak); trontzan 10 korte (neskak eta mutilak). Bestetik, puntuauko ez dan sokatira proba be egongo da.

Ekitaldiari hasierara jantza ikastaroan dabizan zeanuriztarrek emongo deusie arrastiko 16:00etan. Desafioa amaitutakoan trikipoteoa egingo da. Gero, afaria eta erromeria.

ZEANURI 2011

AUZUNE ARTEKO
HERRI KIROL
TXAPELKETA
ABENDUAK 17

asterria plazea uribe
otzemendi undurraga

16:00 Zeanuriko dantzarien "Agurra"
17:00 Herri kirolak:
* Txokor batzea * Zaku-kamerea * Txinga-erotea * Ingudea
* Trontza * Aizkorra * Sokatira
20:00 Triki-poteoa herriko zehar
21:30 Afaria frontoian
Txapelak, 22 euroan. Jubileuetan eta Txoko Seguraren abenduaren 10erarte
Afari ostean ERROMERIA

Auzoen arteko herri kirol desafioa kartela.

FUTBOLA



Arratia futbol taldea Urbietan jokatuako partidu baten.

**Lemoaztarrak
burua altxau
ezinik eta
Arratia goian**

Maialen Egileor

Lemoak burua altxau barik jarraituten dau. Azkenengo jardunaldian be 2-1 galdu eban Zamoraren kontra eta saikapeneko azkenurreko postuan dago; hemeretzigarren da 12 puntuz

eta salbazinoa gero eta urrinago dauka, 5 puntura ointxe bertan.

Arratiako neskek eta mutilak, bariz, ondo baino hobeto dabiz. Mutilak 1-3 irabazi eutsien Ugeragari azken jardunaldian eta lider izaten jarraituten dabe 35 puntuz. Saikapeneko bigarrena, gainera, 5 puntura daukie honezkeroko. Neskek azkenengo partidua 2-0 galdu eben Peña Athletic Santurtziren aurka, baina halanda be, taularen gorenean jarraituten dabe; bigarren dira lehenengo dan Barakaldogaz bardinduta 26 puntura.

DUATLOIA

**Umeentzako
duatloia
Igorren**

Erredakzioa

Arratiako Zekorrek Rugby Taldeak eta mankomunidadeak antolatuta

hilaren 17an, 5 eta 12 urte bitartekoentzat duatloia izango da eskoletan hasi eta Olabarriko zirkuituan. Hiru buelta emon beharko deusie zirkuituari: lehenengo galapan, bigarrena bizikletan eta hirugarrena be galapan. Goizeko 10:30ean hasiko da.

Hau antolatuteko Arratiako Udalen Mankomunitateak Eusko Jaurlaritzaren kirola bultzatzeko diru laguntzea jaso dau.

Elexalde

Meri eta Josetxu

Pinturak (kolore guztiak)

Egur babesleak

Suteak eta behe-suak

Garbiketa produktuak

Lehendakari Agirre, 31 bis - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 62 34 • Fax: 94 673 72 38

indar

instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indars@indars.es • www.indars.es

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Orrie

FOTOKOPIAK - PAPERBENDA

E. Agirre, 7
48140 Igorre (Bizkaia) • Tfnoa: 94 622 64 78

Los Chopos

neurritza egindako armairuak

And. Los Chopos, 33 (Nagari) Tel.: 94 430 40 94

**Esposizinoa eta
fabrikea Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

AKETEGIA

GAY & LORA

IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LIGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONSTRUKTAN
ONDASUN HIGIEZINEN
ASIGURUTAN

Baldina Arana, 5 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 64 01 - 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabinu Arana, 3, 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

axular
kultur elkarriz

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.a.

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Arratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

TXIRRINDULARITZEA

Pauwels nagusitu zan Igorreko ziklo-krosean



Kevin Pauwels Igorren.

Argazkia: Gartzten Martinez.

Kevin Pauwels belgikarrak irabazi eban Munduko Kopako Igorreko lasterketea hilaren 4an.

Erredakzinoa

Bigarren Sven Nys-ek egin eban eta podium-a Tom Meeusenek osotu eban. Egoitz Murgoitio 18.a izan zan helmugan, sailkapen orokorrean 20. posturaino igoz. Erlantz Uriarte igorretarrak 33. egin eban.

Eguraldiak lagundu eban Igorreko Ziklo-krosaren XXXV. Edizinoan. Pauwels-ek irabazi eban Munduko Koparako baliagarria dan proba hau zirkuitua ordu bete, minutu bi eta 31 segundotan eginda.

Proba honen ostean holan geratu da sailkapena:

1. Kevin Pauwels (Belgika) 300 puntu.

2. Sven Nys (Belgika) 285 puntu.

3. Zdenek Stybar (Txekia) 250 puntu.

Egoitz Murgoitio 20. da 98 puntugaz.

Antolatzaileak espero eban baino jente gehiago hurreratu zan Igorreko XXXV. Munduko Kopako ziklo-kros lasterketea ikustera eta honek diru arazoak konponduteko balio izan daua dino Juan Mari Zuringa AZEko presidentek. "Jente asko etorri zan eta horrek mesede handia egin deusku. Uste dogu kubridu egin dogula. Urte asko dira eta bidean lagun asko egin doguz. Horreei esker, atera izan dogu aurrera aurtengoa be".

TXIRRINDULARITZEA

Irati Intxaurrea Bizkaiko ziklo-kros txapelduna

Erredakzinoa

Abenduaren 3an Lezaman jokatu zan Bizkaiko ziklo-kros txapelketan, Opel Ibaiganeako txapel bi lortu ebezan. Gazte kategorian, andrazkoetan, Irati Intxaurrea igorretarrak irabazi eban txapelketea. Master 50 eta 60 kategorian be Opel Ibaiganeko Jose Antonio Mazaira izan zan Bizkaiko txapelduna.

"Tenporaldia ez neban lar ondo hasi, baina aurrera joan ahala hobetuten noa. Hori gertatzen jata normalean. Gainera, askorentzat ziklo-krosa kaminoko txirrindularitza prestatzeko bada be, niri neuri



Irati Intxaurrea.

gehiago gustetan jata ziklo-krosa" azaldu deutso BEGITURI Intxaurrea Bizkaiko txapeldunak.

Opel-Ibaigane itxiko dau Intxaurreak

Urtailean Intxaurrea Beste Alde/Duranguesa Durangoko taldera pasauko da. Hiru ziran Opel Ibaiganeko gazte mailako nesken ekipoa osotuten ebenak: Karina Aguilera, Zoila Cabrera eta Irati Intxaurrea. "Karina Aguilera txirrindularitza itxi dau eta Brasileran joan da biziten. Zoila Punta Galea taldera pasau da. Ezin neban jarraitu Opel-Ibaiganean. Eskerrak emon gura deusadaz Antxia nire entrenatzaileari nigaz egin dauan beharragaitik" dino txirrindulariak.

Opel Ibaigane taldeagaz edota Beste Alde/Duranguesagaz Intxaurrearen hurrengo zitea Espainiako lehiaketea da. Hau urtailaren 7 eta 8an jokatuko da Valentzian.

PELOTEA

Ekhi Ziarrusta eta Jokin Etxebarria dimoztarrak One walleko txapela lortu eben Lemoan

Erredakzinoa

Ehun partidutik gora jokatu ziran Lemoan *One wall* txapelketan eta Arratiakoak ondo jokatu baebebe, txapela bikote dimoztarrak bakarrik lortu eban 18 urte arteko kategorian Gorosabel-Albizu bikoari irabazi ostean.

Banakakoan Albizu eta Ziarrusta neurtu ziran, baina partidu hau dimoztarrak galdu egin eban. Lemoako Eraña be heldu zan aurrefinaletara eta Gorosabelen kontra galdu eban.

Nagusietan, binakakoan, arratiarrak 3. eta 4. egin eben, Erauzkin-Etxebarriak eta Dimako Etxebarriarrak, hurrenez hurren. Banakakoan Lemoako Erauzkin izan zan aurrefinaletara heldu zan bakarra.



Taldeko argazkia.

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Tubak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriak, Pab. 37
Tel. Fax: 94 673 62 76
919 736 616
48143 Igorre Bizkaia

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilergoak, Hezkuntza zikloak

ADIERAZPENA

Adierazpena egin dau mankomunidadeak Euskerearen Nazinoarteko Eguna dala eta**Erredakzioa**

Arratiako Udalen Mankomunitateko Gobernu Batzordeak azaroaren 30eko Akordioaren bitartez Euskerearen Nazinoarteko Eguna dala eta hurrengo konpromisoak berretsi egiten dituala emon dau jakitera prensa ohar bidez.

1. Mankomunidade honek bere esku dagoan guztia egingo dau bere zerbitzu publikoak euskeraz eskeintzeko.

2. Mankomunidade honek, bere esku dagoan guztia egingo

dau bere zerbitzu publikoak eskeintzerakoan lehen berbea euskeraz izan daiten.

3. Mankomunidade honek bere esku dagoan guztia egingo dau bere barne funtzionamentua euskeraz izan daiten.

4. Mankomunidade honek es-



kualde honetako euskal komunitateak dituan hizkuntza eskubide indibidual eta kolektiboak bermatutako, euskeraz biziteko eskubidea helburu dauan plangintza integrala garatzeko konpromisoa hartzean dau, Arratiako Udaletako euskera teknikariakaz koordinatuta.

"Honeek guztiak dira ezinbestekoak, gero eta euskal gizarte askeagoa eregiten joateko, gero eta alkatuagoa gero eta orekatuagoa. Eta holan adierazoten dogu 2011ko Euskerearen Nazinoarteko Egunean" dinoe.

EUSKERA

Euskerea eta Batz**Erredakzioa**

Euskerearen Nazinoarteko Eguna zapatuz zanez, Batzeko langileak barikuan ospatutea ebatzi eben. Euriaren beldur barik, ekitaldi txikia baina polita burutu eben Batzeko sarreran. Arta bat landatu eben, aurrerantzean Batzeko Euskera Planaren ikurra izango dana. Zugatxa, Jose Luis Madariagak, Batzeko Lehendakaria eta Euskera Planeko Koordinatzaileak sartu eban, hainbat langilez inguratuta. Euskerearen aldeko pankarta zabalduta argazki bat-

**Zugatx bat landatu eben Euskera Planaren ikur legez Batzen.**

leak sartu eban, hainbat langilez inguratuta. Euskerearen aldeko pankarta zabalduta argazki bat-

zuk atera eta gero, patata-tortila pintxo goxo batzuk jan ebezan alkarregaz.

LIBURUA

Casa y familia en Vasconia argitaratu dau Labayruk Manterola zuzendari dala**Iparragirre, Ariztondo, Martinez eta Manterola.****Erredakzioa**

Ander Manterolaren zuzendaritzapean egindako *Casa y familia en Vasconia* argitaratu dau Labayruk. On Jose Migel Barandiaranek diseinatu eta abiarazotako Atlas Etnografikoa egitasmoaren barruan dago lan hau eta Atlasaren zazpigarren alea da *Etoko elikadura* (1990, berrarg. 1999), *Haur jolasak* (1993), *Heriotza ohikuneak* (1995), *Jaiotzatik ezkontzara arteko ohikuneak* (1998), *Abeltzaintza eta artzaintza* (2000) eta *Herri medikuntza* (2004) ostean datorrena.

Euskal Herriko zazpi lurralde-

tan egindako inkestetik ateratako datuak emoten ditu, lan deskriptibo da eta. Ez dau interpretaziorik egiten, baina datuak ezagutzen eta bizi dabezanak emondakoak dira. 87 herritan 750 inkesta egin dira. Emoitz da 1.052 orri eta 518 irudiko liburua. Etxea fisikoki eta etxea bizileku lantzean dira liburuan. Horrezaz gainera, familiaren barri be emoten da.

Aurkezpen ekitaldian Ander Manterolagaz, Josune Ariztondo BFAko Kultura diputadua, Jose Luis Iparragirre Eusko Jaurlaritzako Ondare zuzendaria eta Gorka Martinez BBK-koa egon ziran.

EUSKERA

Igorreko alkarteak euskerearen inguruko hitzarmena sinatu dabe**Erredakzioa**

Abenduaren 3an, Euskerearen Eguna, "Alkarteetan euskerea zuzterretik" lemapean ekitaldia antolatu eben Igorreko Udalak eta Euskara Zerbitzuak Kultur

Etxean. "Euskeraz bizi gura dot" esaten eben goizean hasita herriko taberna eta dendetan banatzen ebizen pegatinak. Ekitaldian, herriko 21 entidatek, hitzarmena sinatu eben, euskerearen erabilera alkarteetan

**Herriko alkarteetako ordezkariak eta alkatea hitzarmen ekitaldian.**

be indartuteko helburuagaz. Hainbat arlotan hartu dabez

konpromisoak alkarteok: ezagutza edo hizkuntza gaitasunean,

euskerearen barruko erabilera eta kanpoko erabilera. Hitzarmena 21 alkarteetako kideak irakurri eben eta amaieran, Beinat Anzola alkatea hartu eban berbea, Udalak hitzarmena bete ahal izateko alkarteetan eskura ixten dauzan baliabideen barri emoteko. Ekitaldian ikusgai egon ziran urri lehenengoko Lip dubeko *making offa*, alkarteak eta euskerearen inguruan herrian bertan egindako dokumental laburra eta Lip dub-a bera, pantaila handian. Amaieran, kopautxo bertaratutako jentearantzat.



BERBALAGUN

Arantzazun berbalagun taldea sortu da aurten

Erredakzioa

Herri txikerra izanda, orain arte ez da egon Arantzazun Berbalagun talderik eta aurten sortu da lehenengo aldiz. Lau andrak osotuten dabe taldea: herriko bi bertoko euskera egiten dabenak eta beste bi euskaltegian ikasi eta Arratiako berbakera ikasi gura dabenak.

Lupe Molina da taldearen bul-tzatzailea "nik hemengo euskera ikasi gura neban. Igaz Igorren ibili nintzan talde baten sano pozik eta horixe gura neban hemen Arantzazun. Alkateak zera esan eustan "tira, Lupe, zu oso prestua zara eta topau egizu jentea eta antolatu zeuk". Eta holan hasi nintzan jente bila" azaldu deutso BEGITURI Lupe Molinak.

Ikusita plazan egoten ziran amak "ondo ala txarto, baina euskeraz"

egiten saiatzen zirala eta batzuk kanpotik etorrita batua egiten ebela eta beste batzuk bertako berbake-rea, hareengana jo eta lortu eban taldetxoa sortzea. Lupe Molinak eta Izaskun Paradak Arratiako euskera ikasten dabe Mari Carmen Larrakoetxea eta Olatz Petralandagaz kafetxo bat hartzean, "gure gauzak kontetan, ondo pasetan dogu" dinoe. Baina taldea handi-goxea izatea gustauko litxakie eta Arantzazun, kanpotik etorritakoak be, bertako euskera egitea.

Arratiako jentea alkar eza-gutzeko euskerazko modua

Txitean-pitean, Arratia osoko Berbalagunak batu egiten dira alkar ezagutu eta arrasti atsegin bat pasetako asmoz. Holan abenduaren 2an Igorren taberna baten batu ziran "berrogei personatik gora".



Izaskun Parada, Lupe Molina eta Bego San Anton.

LIBURUA ETA ZOZKETEA

Begitu-lagunak *Haizea aurpegian* liburua dabiz etxean doban jasoten

Erredakzioa

Zertu Kultur Elkartea hasi da bananduten Iker Yurrebasoren *Haizea aurpegian* liburua Begitu-lagunen artean. Izan be, Zertu Kultur Elkartean laguntzea izan daben liburu eta diskoak doban jasoten dabez euren etxeetan Begitu-lagunak.

Zozketea hilaren 24an

Zeberio Ametzola landetxean astegoen bat pasetako saria hilaren 24an zozketatuko da. Saria gau bi, gosaria eta afaria bame da eta sariduna nor izan dan BEGITUREN urtailerko lehenengo zenbakian emongo da jakitera. Zozketa honetan sartzeako aukera Begitu-lagun barriak edota Begitu-lagun bat egiten dabenak eukiko dabe. Begitu-lagunak, urtean 35, 55 edo 75 euroko aportazioa eginda (55 edo 75 Arratiatik kanpokoak) BEGITU Aldizkariari babesa emoten deutsie. Kanpaina hau internet bidez bakarrik zabaldu dau ointxe arte Zertuk, baina paperezkora be ekarte ebatzi dau.

Zozketa baten sartu bakarrik ez, Begitu-lagun barriak *Arratia Ingu-ruko Hiztegia*, Yurrebasoren *Haizea aurpegian* liburua, Gaizka Amondarainen *Ortozik* liburua, Yurrebasoren *Ametz* liburua, Jürgen Lange-k alemanieratik itzultitako *Peru Tximaluze*

liburu klasikoa, Luis Iruarizaga Abes-batzaren 25. urtemugako CDa eta

Arratia, Ubide eta Zeberio postal bildumea be jasoko dabe.

Egin zaituz BEGITU-LAGUN, edo egizu beste lagun bat eta hartu parte zozketan!

gainera, Zertu Kultur Elkartek kaleratutako bost liburu, CD bat eta postal bildumea lortuko dozuz doban!

zozketea

astegoen pasa bat...
Zeberio Ametzola Landetxean!
Bi gau, afaria eta gosaria bame!

abenduaren 24an izango da zozketea eta 2012ko urtailerko lehen zenbakian jakinarazoko dogu irabazlearen izena.

aukeratu urtean zenbateko aportazioa egingo dozun:
35 euro, 55 euro edo 75 euro. Arratiatik kanpo egiten diran Begitu-lagunak 55€ edo 75€ko kuota ordaindu beharko dabe.

izena: abertzale:
helbidea: herria: PK:
telefonoa: postal: kuota:

Ez galdu hau aukeratu eta egin zaituz Begitu-lagun edo egizu bat.

DUNBA

Lemoako eskolako ortua

Lemoako Eguskiza Meabe ikastetxeko ikasleak

Gure eskolan ortu bat dago kirol-degiaren atzeko aldean. Bertan oilategia, negutegia, etxola eta sendabedarrak dagoz.

Momentu honetan landare gitxi dagoz, haziak ereinda daukaguz eta lurra barriztauta be bai.

Gu, astean behin joaten gara ingurune saioetan. Urtaroaren arabera behar desbardinak egiten doguz. Ointxe letxuga eta azak erein doguz. Gero, udabari inguruan patatak, piperrak, tomateak... landatuko doguz.

Batzeako prest dagozanean, lanera goazeno zeozertxo oparitzen deuskue.

Jantokira be letxugak eroaten doguz entsalada on bat prestatzeko...

Oilategiko oiloak arrautzak egiten dabezanean guri saltzean



Lemoako eskolako umeak ortua jagoten.

deuskuez.
OSO ONDO PASATZEN DOGU

ETA ASKO IKASTEN DOGU OR-TUKO BEHARRETAN!!!

Emozinoak lantzean



Urtero legezt aurtengo ikasturtean be Almudena Etxebarria etorri da gure eskolara. Almudena Arratiako Udalen Mankomunitatean egiten dau behar.

Almudena baloreak eta sexualidadea lantzean doguz. Momentuz baloreak lantzean gagoz hilabete honetan, baina aurrerantzean sexualidadea be landuko dogu.

Baloreen gaiagaz lotuta errespetua, tolerantzia, laguntasuna eta amodioa aztertzen doguz. Gai honek aurrera eroateko, jolas batzuk egiten doguz, berba asko egi-

ten dogu eta pelikula bat ikusiko dogu. Sexualidadea geroago ikusiko dogu egun batzuetan zehar.

Amaitzeko esan behar dogu oso pozik egoten garala Almudena, asko ikasten dogu eta danok alkaragaz egoten garala gela ekintzak egiten, inor baztertuta sentidu barrik. Espero dogu datorren ikasturtean be Almudena geugaz egotea.



Baloreak eta sexualidadea landu dabez eskolako ikasleak.

AGENDEA

ABENDUAK

ARRATIA

Gabonen inguruan antolatutako ekintza kultural guztiak 5., 6. eta 7. orrialdean dagoz, herriz herri.

ABENDUAK 16

AREATZA

20:00etan, *Sagarraren denbora* filma Areatzako ludotekan.

IGORRE

10:00etatik 20:45era, urtailaren 9ra arte, Fernando de Vicenteren erakusketea Igorreko Kultur Etxean. Erakusketa gelan, astelehenetik barikura.

12:00etan Udal ordezkari eta beharginen presoen aldeko konzentrazioa. "Eskubide guztiakaz euskal presoak Euskal Herrira" lemapean. Udaletxean.

ABENDUAK 17

AREATZA

20:00etan, *El largo viaje* filma Areatzako ludotekan.

DIMA

Arratiako Egin Dezagun Bidea ekimenak antolatuta enkantea Dimako Jentilzubi Herriko Tabernan, 23:30ean. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

IGORRE

10:30ean, duatloia eskoletan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak eta J. B. Eguskiza Meabe Ikastetxeak antolatuta, Turroi Eguna: Ubide Motxotegi (799m).

ZEANURI

17:00etan, Auzuneen arteko herri kirol desafioa.

ABENDUAK 21

ZEANURI

Kirola egiten dabenezako azterketa medikuak egiteko azken eguna.

ABENDUAK 23

BEDIA

Lehiaketan parte hartu dabenen postal

erakusketearen azken eguna.

ABENDUAK 24

LEMOA

13:00etan, Presoen aldeko konzentrazioa Lemoako plaza gorrian.

ABENDUAK 26

ZEBERIO

12:30ean, San esteban jaiak Etxazon. Idi-probak eta barauskarria.

ABENDUAK 27

AREATZA

Argazki lehiaketan parte hartzeako azken eguna.

ABENDUAK 31

IGORRE

18:30ean presoen aldeko manifestazioa. "Eskubide guztiakaz euskal presoak Euskal Herrira" lemapean. Udaletxean.



Zea Mays 17an Igorreko Kultur Etxean gaueko 21:30ean

Zea Mays taldea Bilbon sortu zan 1997an eta sei disko atera ditu urte honeetan. Azken diskoa, *Era*, hamabi abestiz osotua, Lamiña Producciones-en grabau dabe. Jose Lastra izan da soinu teknikaria eta Tony Cousins-ek masterizau dau Londoneko Metropolis Group estudioetan. Zea Maysek aretoan joko dau ganera, kontzertuak emotera ohituta ez dagozan leku bat, galdu ezin dan kontzertua da.

Zarata handirik atera barik hasi zan talde hau gure belarriak laztantzen, eta holaxe joan dira apurka-apurka, kontzerturik kontzertu, diskorik disko.

Era, melodia, indarra eta emozinoen buztarketa ezin hobea da. Oraingo honetan kantu zuzenen aldeko apostua egin dau taldeak. Aurreko lanetan eregiten zituan garapen harmoniko eta biziai muzin egin barik, kantu zuzenak aukeratu ditue langai, ekaizaren erdian lurra jotzen dauan tximistearen eragingarritasunagaz.

Emoitak ezohiko freskotasuna dauka. Urteak errepidean daroazan lan talde baten jakinduria eta hasi barriaren irekidurea buztartuz osotutako *cocktail* erakargarria da Zea Maysen hau. Melodia itsaskorak, giro inguratzaileak, indarra, emozinoa eta etenbako bilaketa estetikoak osagai dituan jantzi ederra sortu jako Zea Mayseri.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALTZEAN DOT

Vespa Iris 200 motorra. BI-9307-BL 650€ren truke. Kapritxu bat. Deitu 645 006 293 telefonora. telefonora.

ETXEA SALGAI

Areatzako Askatasuna kalean 125 m²ko pisu ederra salgai. Telefonoa: 646 448 869.

AUTORAKO AULKIA SALGAI

Autorako segurtasun aulkia salgai. Römer Duo Plus-Isosif. Group 1 (9/18 Kg). Grisa eta baltza. Oso egoera onean. 626 385 581.

DANERIK

APARTAMENTUA ALOKAIUAN

Suancesen apartamentua alokairuan. Asteburu, astebarru zein edozelan alokatzeko. 4 personentzako. Apartamentu barria. Telefonoa 677 497 985.

AURRESKUA IKASI GURA DOT

Aurrekuaren Kontrapasa ikasteko

eskolak hartzea gura dodaz. Zapatu arrasti edo domekan izan beharko litzateke. Nonor eskolak emoteko prest badago, honako telefono-zenbaki honetara deitzea dauka: 659 059 194.

GARAIEA ALOKAIUAN

Igorreko Sabino Arana 34-35 zenbakietan garajea alokairuan. Interesdunak deitu: 615 731 182 telefonora.

ESKOLAK EMOTEN DODAZ

DBHko, Batxilergoko (ikasgai guztiak) eta Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoko eskolak emoten dira. Deitu 659 729 398 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Zea Maysen kontzerturako.

Maite Artabe (Areatza)
Amaia Arauzo (Ziortza-Bolibar)



2

Zeanuriko Udalak emondako bina sarrera Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saiorako.


Jon Ordeñana (Areatza)
Nagore Lekue (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Biguna, samurra. Sanskritoko silaba sakratua. 2.- Ebatzi.
3.- Letra mutua. Birritan, gar-gar. Nitrogenoa. 4.- Iridioa. Berrogeta hamar erromatar. Meitnerioaren sinboloa. 5.- Edonoz. 6.- Tulioaren sinboloa. Bostehun erromatar. Birritan, korotza. 7.- Azken letra. Langile Abertzaleen Batzordea. Letra bat. 8.- Nekea. 9.- Letra izena. Enara, hegabera.

GOITIK BEHERA

1.- Gixienez. 2.- Erbioa. Informatikan, memoria. Suari dario. 3.- Musika mota bat. Letra bat. Birritan, lore. 4.- Trebetasun. 5.- Galdera marka. Letra bat. Borborka dagoan likidoaren onomatopeia. 6.- (Atz.) Birritan, nahi. Birritan, bozina zarataren onomatopeia. Nora atzizkia. 7.- Berbabide.



Topau Biblical agertzen diran zazpi persona izen.

A	S	T	E	N	T	Z	I	O	M
D	I	U	N	S	U	S	E	J	O
E	R	R	A	N	T	U	G	A	S
M	O	R	B	A	T	H	I	Z	O
A	K	A	M	O	I	S	E	S	L
G	A	S	T	Z	U	E	B	R	O
I	F	E	U	A	T	Z	O	A	J
K	O	L	A	I	S	A	A	C	U
R	A	M	I	K	A	C	T	U	B
P	I	N	T	A	J	A	K	R	E
U	S	E	D	I	M	R	E	D	A
X	I	L	O	R	A	I	T	A	S
E	S	K	I	A	E	A	R	B	I
G	O	H	I	M	A	S	E	J	U
Z	A	R	R	O	M	E	D	A	L

AKIKI KO

Iman Olatu



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Gabon honeetan osasuna eta ondo egotea oparitu egizuz!
Zirkuitu hidrotermala, esfoliazinoa eta estalkia (txokolatea, mailukia, zitrikoak edo kafea aukeran) bakarrak 49 euro banakakoa, 80 euro bikotea
Maddi Ayarza produktuakaz egizu berezia zure Gabonetako otzarea eta % 15eko deskontua lortu*
Balneario Areatza
Askatasuna 50, bis - 48143 Areatza
94 657 54 50 - www.balnearioareatza.com
balnearioareatza@gruposasoibide.es

ARRATIA AUTOESKOLA
Karmela eskolaz zain ordoraz
Gabe. 10 - 48140 Igara (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 54 31 Faxa 94 631 70 83
e-posta: urakua@euskonet.net

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig.Mendieta,nº 3,48500 LEMCIA, Euzkadi
Tel.020-482 839 fax: 020-296 727

ALKOHOLIKO ANONIMOAK
ARRATIAKO TALDEA
Arazoak alkoholagaz?
Arazoak badaukazuz,
lagundu ahal zaitugu
Igorre
BATZAR EGUNAK: epautesak 20etatik 22etara Udaletxura sartapen EPA-ko lokalera
KONTAKTATZENO TELEFONOA: 690 139 044

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Enrika Garratxoak
Mugikorra 629 465 335
brantze osua, 12 LERROK
Tlfnoa: 94 631 50 82 Faxa: 94 631 51 81

KIRRU ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

Bar Restaurante
Montero
Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra
Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

MAR GARROTE

"Prozesu parte-hartzaileak poderea emoten deutsee herritarrai"

Igorreko Udalak herritarraz batera Igorrerako parte-hartze sistema sortzeako prozesua ipini dau martxan udagoiengan, Elhuyar Aholkularitzeagaz alkarlanean. Lehenengo fasean, foro bi antolatu ditue, abenduaren 1ean eta 15ean.

Mar Garrote prozesu honetan parte hartzean dabil, herritar legez. Gizarte hezitzaile honek parte-hartze kontuetan egin dau behar eta hainbat parte-hartze prozesu bideratu ditu.

Erredakzioa

Madrialekoa zara baina Igorren bizi zara, noztik?

Madriren jaio nintzan baina leku askotan bizi izan naz. Orain dala urte bete eta erditik San Kristobalen (Igorre) bizi naz.

Uste dot prozesu parte-hartzaileetan egiten dozula behar. Zein da zure lana? Zein enpresatan? Zein da honeen oinarri ideologikoa?

Orain ez dot horretan lan egiten baina urte askoan parte-hartze prozesu desbardinetan egon naz: Madrilgo hainbat auzunetan eta Mexikoko nekazal eremuetan, esate baterako. Batzuen helbura herritarren bizi kalidadea hobetutea zan, herritarrek eurak protagonista izanda. Geure buruari itauntzen geuntsan zerk egiten deuskun min eta lan plan bat egiten genduan. Aurrekontuen parti-

da batzuen gainean be hartzean ziran ebatziak. Beste esperientzia batzuk umeak izan dira edota batzordeak sortuz hezkuntza, osasuna eta aisialdiaren gainean.

Ni gizarte hezitzaile naz eta nire lana parte-hartze prozesuak dinamizetea zan, horretarako behar diran erremintak eta baliabideak ipiniz. Dinamizetea makinan orioa ipintea da.

Ezagutzen dodazan ekimen gehienak herritarren mobimentutik eta mobimentu asoziatibotik sortzean dira. Honeek benetako demokrazia baten aldeko burrukan herri mailan prozesu parte-hartzaileak proposatzen ditue, ebazteko poderea herritarren artean banandu eta erakunde publikoai jarraipena egiteko. Ekimen hau udaletik sortzea ez da ohikoa. Prozesua, beraz, bentajeagaz abiatzen da baina bakarrik arlo desbardinetakoa jente aktibo asko egon ezker

egingo dau aurrera.

Ze prozesu parte-hartzaile zuzendu dozu? Noz eta non?

Ez dot prozesurik zuzendu, bitartekari izan naz edota parte hartu dot prozesuan. Prozesu parte-hartzaileetan protagonismoak sobran dagoz. Kakoa taldean dago. Taldeko bizitza hobetu behar da, ez bakarrik norbanakoarena. Horregaitik oinarri politiko eta ideologikoa dauka apostua. Erronka handia da, taldean pentsetan erakutsi ez deuskuen gizarte baten, aurrera ateratzea holako prozesuak. Parte hartzean parte hartuz ikasten da, ibilian ikasten da ibiltzen.

Akaso inportanteena prozesu bera da, helburua baino gehiago. Baina emoitzarik ez badago eta jenteak sentiduten badau bere ahalegina alferrikakoa dala motibazioa galtzean dau. Eta jente barik, herritar barik eta talde barik ez dago prozesurik.

Zelan doa Igorreko prozesu parte-hartzaileak? Zeintzuk dira prozesu arrakastatsua izateko kakoak?

Igorrek badauka ibilbidetxoa. Orain esperientzia horreek jaso eta prozesu parte-hartzailearen aldeko apostua egin dau. Goiz da jakiteko zein dan bidea, baina interesgarria izango dala emoten dau.

Abenduaren 1ean egin zan bileran 70 persona inguru batu ziran... esanguratsua da hori.

Ez dago errezetarik baina plan zehatz batetik abiatu behar da, da-

"Prozesuok jasangarriak, feministak eta danontzakoak izan behar dira"



nok dakiguzan pausoak emonez. Zergaitik? Zertarako? Norentzat? Eta Zelan? itaunduta. Prozesuaren erabilera partidistea egin barik. Kontziente izan inportanteena bidea bera dala, komunitadeak heldutasuna lortzea jakinduriak alkar trukatu. Ezin da ahaztu hau podere banaketa bat dala eta ebatzi batzuk lotesleak dirala, bete beharrekoak.

Herritar guztiak, talde baten egon ala ez, emon behar jakie parte hartzeako aukerea (ordutegiak, familiarako zamak, hizkuntza, hezkuntza eta edadearen traben gainetik). Komunitade horretako baliabide guztiak inplikatu behar dira: osasun zentroa, herri aldizkariak, dendak, eskolak...

Prozesuaren barri emotea inportantea da eta zenbat eta sortzaileagoa izan, jente gehiagora helduko da.

Epe luzerako apostua da baina horrek ez dau esan gura laburrerako helbururik ez daukagunik.

Lehen be egoten ziran herritarren eta gizarte zibilaren ekimenak Udalak lagunduten ebezanak, baina herritarren ekimen moduan ulertzen ziran. Udalak martxan ipinten dabezan prozesu parte-hartzaileak, honeek zabaltzea da?

Prozesu parte-hartzaileak ez dira udalena, jentearenak baino. Udal batzuek gura izango dabe bene-

tako prozesu parte-hartzaileak ipintea martxan, beste batzuek, barriz, itxurak egingo dabez horreetan benetan sinisten ez dabelako eta beste batzuek ez dabe inoz holakorik martxan ipiniko ez dabelako gura euren poderea murriztu edota ez dabelako sinisten jentearen ebatziak hartzeako gaitasunean.

Dana dala, udalak bultzatutako parte-hartze prozesuak ez dabez gixitu behar gizarte zibilaren beste ekimenak. Oinarrikoak dira taldeak, auzotarren alkarreak eta beste espazio batzuk eukiten segidutea.

Zeintzuk dira prozesuon oinarriko ardatz ideologikoa?

Prozesu parte-hartzaileen gaineko nire ideak aldatuz joan dira azkenengo urteotan. Hainbat komunitaderen esperiantziakaz elikatu dira: zapatismogaz, kultura indigenak eta honeen ohiturakaz, ama bako gerlarien eskolakaz eta kultura bakotxean auzolanak daukan garrantziaz, beste batzuen artean.

Baina hori, parte hartze eta herritarrek lango berak modan ipini edo esanguraz husten dan testuinguru baten. Abian ipinten dan prozesu parte-hartzaile benetan eraldatzaile izan daitela ziurtatu behar da. Oinarriko ideologia kakoen gainean ereigi: jasangarria ez bada, ez da parte-hartzaile izango; feminista ez bada, ez da parte-hartzaile izango eta danontzat ez bada ez da parte-hartzaile izango.

igorren erosi

GABONETAKO ZOZKETE

1. saria: Gabon otzara itzela
2. saria: 300€ko balea
3. saria: 150€ko balea

Ikur hau daukien dendetan bakarrik

Arratiako Merkatarien Elkarte / www.arratia-merkatariak.com

A.M.E.